



Arartekoaren 2020R-135-20 Ebazpena, 2020ko azaroaren 30ekoa. Horren bidez, Bizkaiko Foru Aldundiaren Gizarte Ekintza Foru Sailari gomendatzen zaio ikuspegi materialetik baloratu dezala logopeda-lanpostuak eskuratzeko interesa duen pertsona batek arreta goiztiarraren arloan alegatutako lan-esperientzia.

Aurrekariak

1. Pertsona batek Arartekoarengana jo zuen Bizkaiko Foru Aldundiak burututako jarduketarekiko bere adostasun-eza azalduz. Hain zuzen ere, ez dago ados foru administrazio horrekin itundutako zentroetan arreta goiztiarreko logopeda-zerbitzuak eman ahal izateko egin zituen ahaleginei dagokienez.

Pertsona horrek Fonoaudiologiako titulu bat zuen, atzerriko unibertsitate batek emana. 2019ko uztailaren 24an titulu hori behar bezala homologatu zen Logopeda lanbidean jarduteko gaitzen duen graduko Espainiako unibertsitate-titulu ofizialarekin, unibertsitate-titulu ofizial horrek lurralde osoan dituen ondorio berberekin, Zientzia, Berrikuntza eta Unibertsitate Ministerioko Unibertsitateen Idazkaritza Nagusiko Tituluen Zuzendariordetza Nagusiak egun horretan emandako kredentzialak bermatzen zuen bezala.

Era berean, interesdunak titulua lortu ondoren bere jatorrizko herrialdean eskuratutako esperientzia egiaztatzen duten hiru ziurtagiri zituen. Hona hemen bi ziurtagiri horien ezaugarriak eta eduki nagusia:

- 2019ko azaroaren 19ko ziurtagiria, zerbitzu eta garapeneko udal-korporazio bateko Giza Baliabideetako buruak sinatua. Agiri horrek egiaztatzen du pertsona hori korporazio horretako funtzionarioa izan zela 2002ko maiatzaren 14tik 2012ko irailaren 30era arte, eta lan-kontratu mugagabea zuela Korporazio horren mendeko Eskola Bereizgarri bateko fonoaudiologo kargua betetzeko.
- 2018ko maiatzaren 24ko ziurtagiria, aurreko paragrafoan aipatutako Eskola Bereizgarriko zuzendariak sinatua. Ziurtagiri horretan adierazten da pertsona horrek 2001eko maiatzetik 2012ko irailera arte arreta goiztiarreko fonoaudiologo kargua bete zuela eta, jarraian, kargu horren eginkizunen xehetasunak azaltzen dira.
- 2018ko maiatzaren 22ko ziurtagiria, unibertsitate bateko Osasun Zientzien Fakultateko dekanok jaulkita dagoena. Bertan baieztatu egiten da pertsona horrek Fonoaudiologiako irakasle eta karrerako buru gisa jardun zuela 2012tik 2015. urtearen amaierara arte, eta arreta goiztiarraren alderdietan esku hartu zuela.

2. Kexaren sustatzaileak adierazten duenaren arabera, bere tituluaren homologazioa lortu ondoren arreta goiztiarra eskaintzen duten Bizkaiko Foru





Aldundiaren itunpeko zentroetako lan-eskaintza batzuk jaso zituen eta, beraz, dagozkion izapideak eta kontsultak egin ziren administrazio horrekin.

Bizkaiko Foru Aldundiak berak erakunde honi jakinarazi zion 2019ko abenduan zentro horietako bateko arduradunak idazki bat bidali ziola Gizarte Ekintza Foru Saileko Ikuskapen eta Kontrol Zerbitzuari pertsona horri zentroan alta emateko eskatzeko, logopeda lanbide-kategoriarekin eta aurreko atalean adierazitako dokumentuetan oinarrituta.

2019ko abenduaren 18an, Zerbitzu horrek honela erantzun zion eskaerari:

"(...) Bertan adierazi zen zen 2019ko uztailaren 24a baino lehen (unibertsitate-titulua homologatu zen eguna) (...)k ez zituela betetzen logopedia- funtzioak egiteko lanbide-kualifikazioko (titulazioko) beharkizunak beharkizunak, eta, horrenbestez, aurkeztutako ziurtagiriak ezin direla kontuan hartu arreta goiztiarrerako esperientzia logopeda gisa egiaztatzeko."

Era berean, mezu elektroniko bat bidali zion interesdunari eta horretan, argudio bera errepikatzeaz gain, honako hau jakinarazi zitzaion:

"Asimismo, tras conversación telefónica con el interesado, y a la vista de las dudas surgidas sobre la posible "homologación" de dicha experiencia por parte de alguna entidad pública competente en la materia, le recomendamos que realice la consulta en el Colegio Oficial de Logopedas del País Vasco.

No obstante si obtuviera cualquier otra certificación por parte de algún otro organismo público competente en la materia puede aportarlo para proceder a su estudio en esta Sección de Control."

Jarraian, pertsona honek beste idazki bat aurkeztu zuen. Idazki horren bidez bere lan-aurrekariak berrikusteko eskatu zuen, Bizkaiko Foru Aldundiko arreta goiztiarreko zentro itunduetan logopeda-zerbitzuak eman ahal izateko. Dokumentu horretan azaltzen zuen hainbat instantzia ofizial galdetu ziela foru administrazio horrek aurrez emandako erantzunari buruz eta adierazten zuen ez zegoela ados lanpostuetara iristeko bere gaitasuna aitortzeari uko egiteko oinarri moduan eman zituzten argudioekin, eta argudio moduan arrazoi hauek ematen zituen:

- Titulua homologatu aurretik, logopedia-lanak egiteko eskatzen ziren baldintzak betetzen zituen, 2002. urteaz geroztik titulazio egokia zuelako horretarako gai izateko.
- Titulu bat homologatzea ez da titulazio berria, beste herrialde batean ikasitako aurreko titulazio bat aitortzea baizik; beraz, titulazio horretan oinarritutako aurreko esperientzia baliozkotzat jo behar da.
- Aplikatu beharreko araudiak ez du ezartzen arreta goiztiarreko esperientzia-ziurtagirik betekizun espezifikokoak izan behar dituztenik edo organo ofizial jakin batzuek jaulki behar dituztenik; beraz, aurkeztu zituenak bertan agindutakoari jarraitzen zioten.





- Nolanahi ere, bai Eskola Bereizgarrian izandako esperientziari buruzko ziurtagiria bai tituluaren homologazioa, erakunde publikoei zegozkien

Eskaera horri erantzuteko idazkian adierazten zen ez zela egiaztatuta geratu araudi erregulatzailan arreta goiztiarrean espezializatutako prestakuntzari edo esperientziari buruz aurreikusitako baldintzak betetzen zirela, ez zegoelako inolako dokumentaziorik egiaztatzen zuenik arlo horretan alegatutako lan-esperientziaren homologazioa, titulua homologatu baino lehenagokoa zena.

3. Kexa-espediente hau izapidetzean Arartekoak bi aldiz jo du Bizkaiko Foru Aldundiarengana deskribatutako aurrekarietan eta arlo honetan aplikatzekoa den araudian oinarritutako hainbat gogoeta helarazteko.

Beste alde batetik, foru administrazioak bere iritzia azaldu du igorri dituen bi txostenen bidez. Txosten horietan, azken batean, adierazten du mantendu egiten duela arreta goiztiarreko zentro itunduetan logopedia-funtzioak lortze aldera kexaren sustatzaileak alegatutako esperientzia onartzearekiko uko egitea.

Dokumentu horietan guztietan jasotako argudioak jarraian agertzen diren ataletan aztertu eta analizatuko dira eta, beraz, ez dira une honetan deskribatuko.

Gogoetak

1. Otsailaren 2ko 13/2016 Dekretuak Euskal Autonomia Erkidegoko Arreta Goiztiarreko esku-hartze integrala arautzen du, eta 22.1 artikulua Haurren Garapeneko eta Arreta Goiztiarreko Zentroek bete behar dituzten langile-baldintzak arautzen ditu, honako termino hauetan:

“Haurren Garapeneko eta Arreta Goiztiarreko Zentro bakoitzean Arreta Goiztiarreko Esku-hartze Talde bat egongo da –Talde hori 13. artikuluan arautzen den moduan–, eta honako eginkizun hauen artetik gutxienez hiru betetzeko titulazio edo kualifikazio egokia duten profesionalak, gutxienez, izan beharko ditu talde horretan:

- a) Psikomotrizitatea.
- b) Psikoterapia.
- c) Fisioterapia.
- d) Logopedia.
- e) Gizarte-lana.

Norbere diziplinari dagokion kualifikazioa izateaz gain, Arreta Goiztiarrean espezializatutako prestakuntza ere izan beharko dute, edo bestela, espezializatutako esperientzia.

Lanbide-kualifikazioa egiaztatzeko balio duten tituluak, ikasketen eta lanbide-gaitasunen katalogoa Eusko Jaurlaritzak finkatuko du, Arreta Goiztiarreko Erakundearteko Batzorde Teknikoaren irizpide eta gomendioetan oinarrituta Arreta Goiztiarreko Erakundearteko Kontseiluak alde aurretik proposamena eginda, eta betiere 9.2 artikulua h) letran eta 10.2 artikulua e) letran aurreikusitakoari jarraiki.”





Horren arabera, Haurren Garapeneko eta Arreta Goiztiarreko Zentroetan logopeda-zerbitzuak eman nahi dituzten pertsonak bi elementu hauek izan behar dituzte:

- Logopediako titulazioa.
- Arreta goiztiarraren arloko prestakuntza edo esperientzia espezializatua

Uztailaren 16ko 110/2019 Dekretuak zabaldu egiten du arau hori, arreta goiztiarraren arloko lanbide-kualifikazioa egiaztatzea ahalbidetzen duten tituluak, ikasketen eta lanbide-gaitasunen katalogoari dagokionez.

2. Espedientea osatzen duen dokumentazioaren arabera, Foru Aldundiak ez du zalantzan jarri kexaren sustatzailearen gaitasuna beharrezkoa den unibertsitate-titulu ofizialari dagokionez, hain zuzen ere interesdunaren titulu akademikoa logopeda lanbiderako gaitzen duen graduako Espainiako unibertsitate-titulu ofizialarekin homologatuta geratu zelako.

Eragozpenak, beraz, arreta goiztiarraren arloko espezializatutako esperientziaren berezko alderdietan finkatu dira eta, zehatzago esanda, pertsona horrek aurkeztutako dokumentuak 110/2019 Dekretuaren 7. artikulua esperientzia hori egiaztatzeko ezartzen dituen eskakizunei erantzuten dieten definitzean. Artikulu horren arabera:

“1.– Arreta goiztiarrean espezializatutako esperientzia egiaztatzeko, ziurtagiri bat aurkeztu behar da, zeina, dekretu honen 3.1 artikuluan adierazitako diziplinetako eginkizunak non bete diren, enpresa edo erakunde horrek emana izango baita.

2.– Ziurtagirian alderdi hauek agertuko dira, xehe-xehe:

- a) Arreta goiztiarraren arloan landutako edo gauzatutako jarduerak edo esku-hartzeak.*
- b) Profesionalak halako jarduerak edo esku-hartzeak gauzatzen eman duen denbora.*
- c) Lanaldiaren iraupena aipatutako jarduerari edo esku-hartzei dagokienez, jardueraren sektoreko lanaldiarekin alderatuta.*

3.– Arreta goiztiarrean espezializatutako esperientzia egiaztatzeari dagokionez, aipatutako jarduerak edo esku-hartzeak gutxienez bi urtez gauzatutakoak izan behar dira, lanaldi osoz, dagokion eremu sektorialarekin bat.

3. Foru Aldundiak kexaren sustatzaileak alegatutako esperientziaren baliozkotasuna ez onartzeko erabili duen lehen argudioa izan zen esperientzia hori guztia unibertsitate-tituluaren homologazioak ondorioak izan baino lehen (2019ko uztailaren 24an) egiaztatu zela.

Hala adierazi zien administrazio horrek bai eragindako pertsonari bai bere zerbitzu profesionalak izateko interesa zuen zentroari.

Erakunde honen iritziz, argudio hori bidezkoa dela onartuz gero, bideraezina izango litzateke arreta goiztiarraren arloan egiten duten lan profesionala aitortua izateko interesa duten eta titulu akademikoak geroago homologatzea





lortu duten pertsonak aldez aurretik egiazta dezaketen edozein esperientzia aintzat hartzea.

Hala ere, Arartekoaren ustez, jatorri hori onartzeak formalitate hutsa baino ez luke ekarriko, hau da, tituluaren homologazio-data hutsa (baliozkotasuna eta ondorioak ezeztatu ez direnean) baino aintzat ez hartzea eta arreta goiztiarraren eremu espezializatuan egiazta daitekeen esperientziaren balioespen materiala alde batera uztea.

Esperientzia hori, gainera, aztergai dugun kasu honetan gertatzen den bezala, esperientzia hori duen pertsonak bere herrialdean lanbide horretarako baliozko gaikuntza ematen dion titulu akademikoa duen unean gauzatu ahal izan da eta, beraz, ezin izango litzateke inola ere irregulartzat edo hura gauzatzeko funtsezko elementurik gabekotzat jo.

Era berean, nabarmendu behar da gaia arautzen duen araudiak ez duela inolako aurreikuspenik egiten ondorioztatzeko atzerriko titulazio homologatuen kasuan ez dela onargarria izango atzerriko herrialde horietan homologazio horren aurretik egiaztatutako esperientzia.

Arrazoi horiek guztiak direla-eta, erakunde honek ezin du lehen argudio horrekin bat egin.

4. Bigarrenik, bazirudien kexa jarri zuen pertsonak alegatutako lan-esperientzia atzerriko herrialde batean eskuratu eta herrialde horretako erakundeek ziurtatu izanak eragin zuela administrazioaren jarrera.

4.1. Ildo horretatik, erakunde horrek jaso zuen mezu elektronikoa aurreko atalean aztertutako argudioarekin hasi zen eta, jarraian, Euskal Autonomia Erkidegoko Logopeden Elkargo Ofizialean kontsultatzeko gomendatu zitzaion, honako informazio hau jasotzeko: *“la posible “homologación” de dicha experiencia por parte de alguna entidad pública competente en la materia”*.

Beste alde batetik, erakunde honek bidalitako eskaerari erantzuteko lehen idazkian apur bat gehiago zehazten zuen jarrera horren justifikazioa eta, zehatz esanda, honako hau adierazten zen:

“Kasu honetan, 110/2019 Dekretuaren 4.1 artikuluan xedaturik dagoena bete eta egiaztatuta da, atzerriko titulazioen homologazioari dagokionez.

4. artikulua horrek honako hau ezartzen du bigarren idatz-zatian:

“Bereziki, Europar Batasuneko kide diren estatuetakoko pertsona nazionalak Europar Batasuneko arautegian aurreikusitako aintzotespen profesionalak kasuetan, baldin eta, beren kabuz edo besteren kontura, Espainiako Estatuan araututako lanbide bat egin nahi badute, beste estatu kide batean edo batzuetan lortutako kualifikazio profesionalak onartuz, Europar Batasuneko antolamendu juridikoan jasotako berariazko mekanismo eta prozedurak aplikatuko dira.”

Kasu honetan, interesdunak atzerriko herrialde bateko erakundeek emandako lan-esperientziaren ziurtagiriak aurkeztu ditu.





Ziurtagiriek ez du aurkeztu lan-arloan edo gizarte segurantzaren eskumena duen erakundearen dokumentaziorik, hots, lan-esperientzia gisa aitortu dela egiaztatzen duenik.

Horrezaz gainera, lan-esperientzia hori logopeda gisa aintzatetsi dela ere jaso behar da kasu honetan.

Horregatik, Kontrol Atalak Saltoka zentroko arduradunari eta interesdunari berari adierazi zien atzerriko lan-esperientzia aintzatestearen arloko administrazio eskudunaren dokumentazioa aurkeztu behar zuela, eta, era berean, Logopeden Elkargo Ofizialean eskaera bat egiteko aholkatu zitzaion, atzerrian lan-esperientzia aintzatesteko legezko prozedura zehazte aldera.”

Azkenik, Foru Aldundiak Arartekoari bidali zion bigarren txostenak berriz ere azpimarratu zuen beharrezkoa zela kexaren sustatzaileak lanbide-esperientziaren aintzatespena lortzea eta aurkeztea, eta honakoa adierazten zuen :

“Gizarte Ekintzako Foru Saileko Ikuskapen eta Kontrol Zerbitzuak sarbidea du Gizarte Segurantzaren zerbitzuetako datu-baseetara. zentroetako langileen gizarte-arloko betekizunak egiaztatzeko.

Haurren garapenerako eta arreta goiztiarrerako zentroen kasuan, ikuskapenaren xede diren gizarte-zerbitzuetako beste zentro mota batzuetan bezala, kontsulta egiten da Gizarte Segurantzaren datu-baseetan, dagokion Gizarte Segurantzako araubideko altak eta bajak egiaztatzeko. langileek alta emanda duten lanbide-kategoria ziurtatzeko

Kasu honetan. Zerbitzuak kontsulta egin zuen Gizarte Segurantzaren, eta (...)ren lan-bizitza 2015etik zegoela egiaztatu zen. Ez zegoen jasota data hori baino lehenagoko lan-esperientziarik.

(...)

Kontuan hartuta Gizarte Segurantzaren datu-baseetan ez zegoela 2015. urtea baino lehen aitortutako lan-esperientziarik, Kontrol Atalak interesdunari eskatu zion lan-arloko edo Gizarte Segurantzako erakunde eskudunak emandako dokumentazioa aurkez zezala, atzerriko lan esperientzia ofizialki aitortu izana egiaztatzeko, arlo horretan Gizarte Segurantzaren izapidetzen diren legezko prozeduren arabera.”

Bigarren dokumentu horrek, gainera, ordura arte adierazi gabeko argudio bat eransten zuen, eskaerarekin batera aurkeztutako dokumentuen ondorioak eragiteko gaitasunari buruzkoa:

“Halaber, arreta goiztiarrean espezializatutako esperientzia egiaztatzeko interesdunak aurkeztutako dokumentuei dagokienez (atzerriko agintariak), ez dago jasota dokumentu horiek atzerriko dokumentu publikoak legeztatze prozeduraren edo, hala badagokio, apostilla-izapidetaren xede izan direnik.

Horregatik guztiatik, aurkeztutako dokumentuak (legeztatze edo apostilla izapidetarik gabeko atzerriko agintariak emandako ziurtagiriak) berez ez dira nahikoak 110/2019 Dekretuaren 7. artikuluan jasotako baldintzak betetzen direla egiaztatzeko”

4.2. Arrazoibide horiek aztertzen hasi aurretik, nabarmendu behar da ez posta elektronikoa, ez, oro har, espediente honetan emandako dokumentazioaren arabera kexaren sustatzaileari helarazi zitzaion informazioak, ez zutela zehaztu zein zen foru administrazioak alegatutako ziurtagiriei balioa emateko beharrezkotzat jotzen zuen betekizun espezifikoak, ez eta hura lortzeko prozedura bideratzeaz arduratzen zen erakundea zein zen ere. Ordea,





alegatutako esperientziaren aintzatespen edo homologazio zehaztugabe bat aipatuz, interesdunari bere kabuz informatzeko gonbita egiten zioten.

Arartekoaren ustez, zehaztasun falta horrek, neurri handi baten, pertsona horren esku hartzeko aukerak zaildu zituen, zehaztu gabeko betekizun bati buruzko informazio zehaztugabea bilatzera bultzatuz.

Aitzitik, erakunde honen ustez, Foru Aldundiak izapide edo betekizun gehigarri bat saihestezina zela uste bazuen, argi eta garbi azaldu beharko zukeen zertan zetzan izapide hori eta zein zen horretara behartzen zuen araua, zein erakunde publikok erraztu zezakeen hori lortzea eta horretarako prozedura egokia.

Ondorio horietarako nabarmendu behar da, kasu honetan, denboraren joanak kalte egiten diola kexaren sustatzaileari; izan ere, arreta goiztiarrean lortu zuen esperientzia kontuan hartzeko eta aintzatesteko zailtasunak argitzen ez diren bitartean, ezin ditu eskuratu eskatzen dituen lan-aukerak.

4.3. Ildo beretik, Arartekoak Bizkaiko Foru Aldundiari jakinarazi zion deigarria iruditu zitzaioela foru administrazio horrek kexaren sustatzaileari Logopeden Elkargo Ofizialean kontsultatzeko aholkua eman izana, atzerrian lan-esperientzia aitortzeko lege-prozedura zein zen ezagutzearen ondoretarako.

Izan ere, erakunde honen azterketan, administrazioak zalantzak bazituen beste herrialde batean arreta goiztiarrean esparruan egiaztatutako esperientzia onartzeko edo ez onartzeko aukerari buruz, egokiena izango zen erakunde horrek berak arlo horretan bereziki kualifikatutako organo batengana jotzea, adibidez Arreta Goiztiarreko Erakundearteko Batzorde Teknikoarengana. Batzorde horren eginkizunetako bat honako hau da⁵:

“Arreta Goiztiarreko Erakundearteko Kontseiluari gomendioak eta proposamenak helaraztea berez dagozkion eginkizunak garatzeko eta, bereziki, Kontseiluak lanbide-kualifikazioa egiaztatzeko balio duten titulu, ikasketa eta lanbide-gaitasunen katalogoaren proposamena egin dezan.”

Bizkaiko Foru Aldundiak ez du aukera hori baloratu bere erantzun-txostenean, nahiz eta erakunde honen iritziz, eta gertaerak nola gertatu diren ikusita, planteatutako egoera desblokeatzeko arrazoizko bidea izango litzatekeen.

4.4. 110/2019 Dekretuaren 4. artikulua bigarren paragrafoari dagokionez, foru administrazioak jarduketaren justifikazio gisa argudiatzen duena, erakunde honek ez du uste arreta goiztiarreko esperientzia-ziurtagiriei aplikatu ahal zaienik.

Hain zuzen ere, artikulua horrek *“Atzerriko unibertsitate edo goi-mailako hezkuntza-erakunde batek egindako atzerriko tituluen homologazioa”* arautzen

⁵ Otsailaren 2ko 13/2016 Dekretuaren 10.2 artikulua.



du eta, zehatzago esanda, bere bigarren atala lanbide-kualifikazioak aintzatetsiz araututako lanbide batean jarduteko gaitasunari buruzkoa da.

Oro har, lanbide-kualifikazioak aintzatesteko prozesua 5/2002 Lege Organikoa⁶ eta 1224/2009 Errege Dekretua⁷ bezalako tresna arautzaileetan aurreikusita dago, eta, ezaugarri definitzaileak direla eta, lan-esperientziaren eta/edo prestakuntzaren bidez lanbide-gaitasunak lortu dituzten baina gaiari buruzko egiaztapen ofizialik ez duten pertsonen zuzenduta dago.

Horrez gain, Europan ere, araututako lanbideetan jarduteari buruzko lanbide-kualifikazioak aitortzeko prozesu zehatza aurreikusten da. Ekainaren 9ko 581/2017 Errege Dekretuan⁸ agertzen da, eta honako hau du xede: *“establecer las normas y procedimientos para permitir el acceso y ejercicio de una profesión regulada en España mediante el reconocimiento de las cualificaciones profesionales adquiridas en otro u otros Estados miembros de la Unión Europea y que permitan a su titular ejercer en él la misma profesión.”*

Erakunde honentzat, 110/2019 Dekretuaren 4. artikuluko erregulazio-eremua atzerrian lortutako titulu akademikoak aintzatestera eta aurreko paragrafoan deskribatutako lanbide arautu batean aritzera bideratutako lanbide-kualifikazioetara mugatzen da; beraz, ezin da ulertu arreta goiztiarreko esperientziaren betekizun bereziak ere zehaztea.

Izan ere, ondorio hori 4. artikuluen edukitik ez ezik, haren kokapen sistematikotik ere ondorioztatzen da, 3. artikuluen ondorengoa (arlo bakoitzeko eginkizunak betetzeko eskatzen den unibertsitate-titulazioari eta psikomotritatearen eta psikologiaren alorretan eskatzen den prestakuntza osagarriari baino ez dagokio), eta bai 5. artikuluen aurrekoa (bertan agertzen dira arreta goiztiarreko prestakuntza- eta esperientzia-betekizunak), eta 7. artikuluen aurrekoa (oso-osorik arreta goiztiararen arloko esperientzia espezializatua egiaztatzeari buruzkoa dena) delako.

Eta, era berean, 110/2019 Dekretuaren zioen azalpenean horri buruz adierazitakoa, artikuluko horietako bakoitzaren helburu zehatza deskribatzen baitu:

“4. artikuluan, atzerriko unibertsitate batean edo goi-mailako hezkuntza-erakunde batean lortutako unibertsitate-tituluen kasu zehatza arautzen da; izan ere, tituluok, aintzatetsi baino lehen, homologatu egin behar dira, titulu horiek dituzten pertsonen gaitasunak eman eta 3. artikuluan jasotako eginkizunak bete ditzaten Euskal Autonomia Erkidegoko haurren

⁶ 5/2002 Lege Organikoa, ekainaren 19koa, Kualifikazioei eta Lanbide-Prestakuntzei buruzkoa.

⁷ 1224/2009 Errege Dekretua, uztailaren 17koa, lan-esperientziaren bidez eskuratu diren lanbide-gaitasunen aintzatespenari buruzkoa.

⁸ 581/2017 Errege Dekretua, ekainaren 9koa, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2013ko azaroaren 20ko 2013/55/EB Zuzentaraua, lanbide-kualifikazioak aitortzeari buruzko 2005/36/EE Zuzentaraua eta barne-merkatuaren informazio-sistemaren (BMI Erregelamendua) bidezko administrazio-lankidetzari buruzko 1024/2012 Erregelamendua (EB) aldatzen dituena, Espainiako ordenamendu juridikoan sartuz.





garapeneko eta arreta goiztiarreko zentroetan. Artikulu horretan jasota dago, orobat, Europar Batasuneko estatuetakoa herritarrek lanbide-aintzatespena lortzeko duten aukera, Espainiako estatuan lanbide arautu batean aritu ahal izateko –aukera hori Europar Batasunaren araudian aurreikusia dago–.

5. artikuluan, arreta goiztiarreko esku-hartze talde bateko partaide izan nahi duten profesionalek bete behar duten eskakizun bat garatzen da; hain zuzen ere, arreta goiztiarrean espezializatutako prestakuntza edo arloan espezializatutako esperientzia egiaztatzeko eskakizuna.

Aipatutako ondorioetarako, 6. artikuluan arautzen da arreta goiztiarrean espezializatutako prestakuntzak zer baldintza bete behar dituen; 7. artikuluan, berriz, zehazten da nola egiaztatu behar den lan-eremu horretan emandako zerbitzuengatik lortutako esperientzia espezializatua.”

Tituluaren homologazioak Logopeda lanbidean jarduteko beharrezko gaitasuna ematen zion kexagileari, hau da, 110/2019 Dekretuaren 3. artikuluan araututako baldintzetan; beraz, ez zuen behar, inola ere, bere jardueraren lanbide-kualifikazioak gerora aintzatestea, arau horren beraren 4. artikuluan aurreikusitako moduan.

Ez da ahaztu behar, gainera, artikulu horretan aurreikusitakoa Europar Batasuneko beste estatu kide batean edo batzuetan lortutako lanbide-kualifikazioei buruzkoa baino ez dela eta, beraz, adierazitakoaz gain, ohartarazi behar da araudi hori ezin izango zitzaiola inola ere aplikatu kexaren sustatzaileari, bere esperientzia Europako eremuaren parte ez den herrialde bati baitagokio.

4.5. Bizkaiko Foru Aldundiak alegatzen zuen, halaber, ez zegoela lan-arloan edo gizarte-segurantzaren arloan eskumena duen erakunde batek egindako agiri bat, atzerrian lan-esperientzia ofizialki aintzatetsi dela egiaztatzen duena, Gizarte Segurantzaren arlo horretan izapidetzen diren lege-prozeduren arabera.

Hala, erakunde horren lehenengo txostenean, eskakizun hori 110/2019 Dekretuaren 4.2 artikuluekin lotzen zen, honen aurreko atalean aztertutako moduan; bigarrenean, berriz, kexaren sustatzaileak alegatutako esperientzia Gizarte Segurantzaren datu-baseetan sartu gabe dagoela adierazi ondoren aipatzen du.

Hori guztia kontuan hartuta ondorioztatzen da foru administrazioa, edozein esperientzia kontuan hartzeko, antza denez eskatzen ari dela esperientzia hori Gizarte Segurantzako sistemetan islatuta egotea eta lan-bizitzaren ziurtagiriaren edo antzekoaren bidez egiaztatu ahal izatea.

110/2019 Dekretuak ez du eskakizun hori ezartzen, eta ez dio Gizarte Segurantzari esleitzen araudi horrek eskatzen duen arreta goiztiarreko esperientzia ziurtatzeko gaitasuna eta eskumena; izan ere, xedatzen duenaren arabera, honako hauen bidez ziurtatu beharko da: *“adierazitako diziplinetako eginkizunak non bete diren, enpresa edo erakunde horrek emana izango baita.”*





Beste alde batetik, egia da laneko eta gizarte segurantzako araudiak aukera ematen duela, egoera jakin batzuetan, erakunde publiko eskudunek onar ditzaten beste herrialde batzuetan bizi diren pertsonak egiaztatu dituzten lan-aldiak, sistemaren babes-ekintzari dagokionez ondorioak izan ditzaten.

Egoera horrek, hala ere, ez du esan nahi, erakunde honen iritziz, ahalmen hori, jarduketa-eremu bati eta prozedura jakin batzuei dagokiena, ezaugarri eta ondorio guztiz desberdinak dituen eremu eta prozedura baten funtsezko elementutzat har daitekeenik.

Horrela, kontua ez litzateke izango kexa hau eragin duen kasuan zehaztea ea alegatutako esperientziak Gizarte Segurantzak bere eskumen-eremuari buruzko prozedura zehatzei begira onartzeko jasotzen dituen baldintzak betetzen dituen, baizik eta zehaztea ea esperientzia horren eduki materiala bat datorren 110/2019 Dekretuan azaldutakoarekin, ulertzen baita gaiaren elementu esanguratsua edo funtsezkoa arreta goiztiarraren arloan egindako lanak direla.

4.6. Azkenik, foru administrazioaren bigarren txostenak alegatzen du ez dagoela jasota aurkeztutako dokumentuak atzerriko dokumentu publikoetan edo apostilla-izapideetan legeztatu direnik.

Lehenago aurreratu den bezala, eskakizun hori ez zen aipatu ez kexaren sustatzaileari zuzendutako komunikazioetan, ez foru administrazioak erakunde honi emandako lehen erantzunean; beraz, zalantzan jar liteke aurkeztutako dokumentazioaren baliozkotasuna onartzeari uko egitea eragin zuten arrazoen artean egotea.

Beste alde batetik, eta honen aurreko atalean adierazi den bezala, betekizun hori ere ez da agertzen 110/2019 Dekretuan aurreikusitakoaren artean, eta ezin da ahaztu, gainera, hori ez dela dokumentu publikoen bidez ziurtatutako esperientziara mugatzen; aitzitik, enplegatzaile pribatuek emandako dokumentuen bidez egiaztatutakoa ere onartzen du eta, ordea, hala legeztatzea nola apostilla dokumentu publikoei buruzkoak dira.

Kontuan hartu behar da, halaber, bi sistema horiek aukera ematen dutela sinatzailearen nortasuna eta kargua eta atzerriko dokumentuaren izaera publikoa egiaztatzeko, baina horrek ez du ezer esan nahi, inola ere, dokumentuaren eduki materialari eta baliatu nahi den prozeduran izan ditzakeen ondorioei dagokienez; nolana ere, azken hori kudeatzeko eta ebazteko eskumena duen organoak ebaluatu beharko ditu agiriok.

Nolana ere, kexa aurkeztu zuen pertsonak administrazioan eskaera egin zuenetik igarotako denbora eta espediente honetan egindako jarduketa guztiak kontuan hartuta, Arartekoak uste du aurkeztutako dokumentuen benetakotasunari buruzko edo agiri horiek sinatzen dituzten pertsonen kalitateari buruzko zalantzak sortu baziren, inguruabar hori argi eta garbi adierazi beharko zela, hau da, administrazioaren ustez konpondu beharrekoztat





jotzen zituen gabeziak eta mentsak adierazita edo, hala badagokio, gabezia horiek uxatzeko jarduketa egokia erabakita.

4.7. Arartekoaren iritziz, eta arlo horretan aplikagarria den araudi espezifikoa aztertu ondoren, Ikuskapen eta Kontrol Atalak eskatutako eskakizunak ("*atzerrian lan-esperientzia aintzatesteko eskumena duen administrazioaren dokumentazioa ematea*") ez datoz bat 110/2019 Dekretuaren 7. artikuluan planteatutakoekin. Artikulu horren hitzez hitzeko edukia aurrean jaso da.

Izan ere, artikulu horrek baldintza bakarra ezartzen du: ziurtagiria eginkizunak bete dituen enpresak edo erakundeak egitea, eta zenbait alderdi jasotzea.

Ebazpen honetan azaldu den bezala, 110/2019 Dekretuak ez du eskatzen atzerriko titulu bat homologatu duten pertsonen kasuan lanbide-esperientziak homologazioaren ondorengo izan behar duenik, eta ez du baztertzeko titulu horren arabera titularrak dagozkion eginkizunak garatzeko ahalmena zuen herrialde batean lortutako esperientzia kontuan hartzea.

Era berean, ez du eskatzen eman daitezkeen ziurtagirietan islatutako arreta goiztiarreko esperientzia aldeztetik homologatzeko edo aitortzeko prozesurik, eta ez du inolako aipamenik egiten esperientzia Gizarte Segurantzaren sistemetan eta erregistroetan txertatuta egoteari buruz edo beste erakunde publikoren batek berretsi behar izateari buruz.

Kexarekin batera aurkeztutako ziurtagiriak kontuan hartuta, erakunde honek uste du dokumentu horiek 110/2019 Dekretuaren 7. artikuluan berariaz jasotzen diren xedapenei atxikitzen zaizkiela, esperientziaren xede diren funtzioak egin ziren erakundeak ematen baititu, eta horiek zein izan ziren eta noiz egin ziren adierazten baitute.

Horregatik guztiagatik, gomendio hau egiten dugu, otsailaren 27ko 3/1985 Legeak –erakunde hau sortu eta arautzekoak– 11 b) artikuluan ezarritakoaren arabera:

GOMENDIOA

Arreta goiztiarreko lan-esperientzia, logopeda-lanpostuak eskuratzeko interesa duen pertsona batek alegatu duena, ikuspuntu materialetik baloratzea.

